

“BEGIRA, BEGIRA! ENTZUN, ENTZUN!”: NATURARI ARGAZKIAK ETA GRABAZIOAK EGITEN

** Cristina Enea Fundazioko lagunek erakutsitako jarduera baten moldaketa da hau. Eskerrik asko Cristina Enea!*

Ipuina irakurri eta gero, kalera aterako gara, natura sentitu (ikus, entzun, usaindu) daiteken gunera batera. Jarduerak zerikusit berezia du ipuineko pasarte honekin:

*“Nola aurkituko dugu itzulerako bidea?
Landareei entzunez, zuhaitzei entzunez, txoriei entzunez”*

Naturari modu berezian erreparatzeko jarduera dugu hau. Oinarrian, helduei zuzendutako jarduera bat da, eta horregatik fitxa honetan bi proposamen topatuko dituzue: batetik helduei egindako proposamenaren moldaketa, haur nagusiagoei zuzendu ahal zaiena; bestetik haur txikiagoentzat moldaketa. Biak mantendu ditugu, irakasleek biak ezagutzeko aukera izan dezazuen.

1. LHrako proposamena

Ikasleak binaka jarriko ditugu. Bietako bat argazkilaria izango da, eta bestea argazki makina. Argazki makinarekin lana egingo duen umeak, begiak itxi egingo ditu, eta argazkiak egiteko orduan bakarrik irekiko ditu begiak.

Emango ditugun azalpenak honakoak dira:

- Zuetako bat argazkilaria izango da. Arratsalde euritsu batean familiako etxeko ganbarara igo zarete eta traste zaharren artean kutxa batek atenzioa eman dizue. Ireki duzuen bertan argazki kamera aurkitu duzue, amonaren argazki kamera zaharra.

Eta kameraren ondoan ohartxo bat:

Kamera hau oso berezia da, argazki ederrak egiten ditu baina kontu handiz erabili behar da. Ondo aukeratu 3 argazki baino ez baititu ateratzen

- Argazki kamera zaretenok honakoa egin behar duzue: begiak itxita eraman, eta argazkilaria eskatzen dizuenaren arabera poliki-poliki mugitu. Belarritik tira egiten dizunean begiak irekiko dituzu, aurrean duzuna begiratu, sentitu, eta berriz tira egitean itxi.

5 minutu izango dituzue 3 argazki ateratzeko. Ez ibili presaka. Abisua ematen dizuedanean paperak aldatuko ditugu argazkilaria kamera bihurtuz eta alderantziz.

Amaieran, taldean biribilean eserita nahi duenak taldekideekin kamera izatean sentitu eta ikusitakoa partekatuko du, zaindua sentitu den, ikusi dituen argazkiak gustatu zaizkion... Argazkilariak izaterakoan argazki bakoitza zergatik aukeratu duten ere partekatu dezakete.

Eguneroko bizitzan, adi-adi begiratzen diozue inguruneari? Erreparatzen al diozue gauza txikiei?

2. Hhrrako moldaketa

Kasu honetan, argazki kamera erabili beharrean marko bat erabiliko dugu parte hartzaileen atentzioa finkatzeko. Kartoizko markoak erabili ditzakezue baina hauen ordez uztaiak edo sokak ere baliagarriak izango dira.

Zelai batera joango gara. Ariketa hasi aurretik behaketa orokor bat egin dezakegu. Zer da belardi bat? Zein koloretakoa da? Lehenengo begirada batean belarra besterik ez dugu ikusten eta bere kolorea berdea da. Baina benetan horrela al da?

Ikasleak taldeka jarrita, zelaitik mugitzea eskatuko diegu eta lurrian berdea ez den zerbait ikustea markoarekin inguratzea. Orduan hasiko da behaketa zehatza:

- Nolakoa da markoaren barruan dagoen belarra? Gertutik begiratuta belar guztia ez da berdina izaten. Belarra bera aurkituko dugu baina baita hirusta, txikoria belarra eta beste motatako landareak ere.
- Ba al dago berdea ez den zerbait zuen koadroan? Loreak aurkitzea ez da arraroa izango, negua bada ere posible da bitxiloreren bat egotea, baina bestela ere hostoak, harriak edo beste elementuren bat aurki dezakete.
- Ba al dago xomorrerik?

Behaketa egin ondoren ikusitakoa marrazki batean jaso dezakete.

Zelai bat belarra baino askoz gehiago da!

Fitxa didaktiko hauen edukia honako lantaldeak osatu ditu:

- Libe Narvarte Eguiluz, Alboan Fundazioa, Hezkuntza teknikaria
- Ariane Paredes Palacín, Alboan Fundazioa, Hezkuntza teknikaria
- Oihana Orkolaga Fernandez, Cristina Enea Fundazioa, Hezkuntza teknikaria
- Edurne Ugarte Nieto, Irakaslea, Ingurumen Hezkuntzako aholkulari pedagogikoa Ingurugelan
- Mikel Barcenilla Álvarez, Irakaslea, Ingurumen Hezkuntzako aholkulari pedagogikoa Ingurugelan

Laguntzailea:



Laguntzaileak:



Sustatzaileak:

